

## EDITORIALA

2016: argi gutxi, itzal asko

Manu Robles-Arangiz Fundazioak *Egoeraren Azterketa* agerariaren ale berri bat argitaratu berri du. Bertan egungo egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa zorrotza egiten da. Ale honetan, hain zuzen, 2016. urteko balantzea egiten da, batez ere enplegua eta bere egoera ardatz bezala hartuta.

2016an gertatutakoaren ondorio nagusia honako hau da: beste urte batez errentaren banaketa aurreko urteetako baino are ezberdinagoa da. Enplegua sortu eta langabezia murriztu da; baina, sortutako aberastasuna (Barne Produktu Gordina) *subprime* krisia hasi zen urtekoa (2008koa) baino %3,9 altuagoa izan bada ere, langabezia maila orduan zegoena baino askoz ere handiagoa da eta ez da enplegu nahikorik sortu. Izatez, enpleguaren kalitatea guztiz prekariora da eta era bortitzean diskriminatzen dira emakumeak, gazteak eta 55 urte-tik gorakoak.

Gainera, langabeziagatiko prestazioetara bideraturiko gastuak murrizketak jasaten segitzen du: gero eta pisu txikiagoa du BPGan, urterik urte eskaintzen duen estaldura baxuagoa da eta hartzaileko eta orotara bideratzen den baliabide kopurua murrizten da.

Beraz, ulertezina da bizitzen ari garen une honetan biztanleria osoaren bizi-baldintzak hobetuko dituzten neurriak ez hartzea, pertsona guztiak barneratzen dituen berdintasunean eta gizarte justizian oinarrituriko gizarte eta ekonomia alternatiba sortu beharra baitago.

## Histórico militante, jesuita y maestro de sindicalistas, falleció el 25 de febrero

# AGUR, VALENTÍN BENGOA

No por esperada la muerte de un ser querido es menos dolorosa. En la madrugada del 25 de febrero falleció, a los 94 años de edad, Valentín Bengoa, militante histórico de ELA y forjador de personas y sindicalistas durante décadas.

En la hora del adiós, ELA quiere reivindicar el trabajo ingente y callado de Bengoa durante tantos años en pro de una Euskal Herria más justa.

A pesar de que siempre huyó del protagonismo personal y eligió estar en un segundo plano, cualquiera que conociera nuestra organización sabía de la trascendencia de Valentín en la historia de ELA, por eso, una vez conocida la noticia de su fallecimiento, fueron incontables los mensajes de solidaridad recibidos.

ELA quiere agradecer públicamente todos esos mensajes, al tiempo que anunciamos que se realizará un homenaje a la figura de este histórico sindicalista en fecha todavía sin concretar.

### HOMENAJE EN EL XIII CONGRESO

Hace ya cuatro años, aprovechando la celebración del XIII Congreso, ELA ya le realizó un sentido homenaje, que se convirtió, sin duda, en uno de los momentos más emotivos del mismo.

Con la fina ironía que le caracteriza-



ba explicó a las y los presentes que había intentado aplazar el homenaje al siguiente Congreso (al XIV, que se celebrará precisamente este mes de junio) "porque tenía intención de perdurar, pero los que me lo propusieron no lo debían tener tan claro...".

En su intervención, fiel a su estilo personal, destacó el trabajo de las y los militantes anónimos del sindicato, "sin los cuales ELA no existiría". Y entre ellos, remarcó, especialmente, "a las mujeres del sindicatos y a los piquetes".

Bengoa finalizó su intervención asegurando a las y los presentes que "vosotros/as sois el futuro del sindicato. Por eso, a pesar de los tiempos difíciles que estamos viviendo, soy optimista". "No olvidéis que un sindicalista se crece en la adversidad, que un sindicalista no se rinde jamás". Esa fue, la última enseñanza pública que nos dejó Valentín.

**Intentaremos seguir tus paso, maestro. Bidelagun.**

## 1976KO MARTXOAREN 3AN ERAILDAKO LANGILEEN OMENEZ

Dagoeneko 41 urte igaro dira 1976ko martxoaren 3an Espainiako poliziak bost langile hil eta hamarnaka zauritu zituenetik Gasteizen. Horregatik, beste urte batez, gure sindikatuak -LAB, ESK eta STEILASekin batera- langile hauen omenezko ekimena antolatu zuen. ELAk langile horien baloreak aldarrikatu nahi izan zituen Martxoak 3 plazan egindako omenaldian. Izan ere, orain bagara lehen ere izan ginelako da. ELAk ere azpimarratu nahi izan zuen, duela 41 urte bezala, urrun gaudela gizarte justu bat izatetik. Horregatik sindikatuak borroka honetan jarraitzeko konpromisoa berretsi zuen.

*ELA recordó el 3 de marzo a los cinco trabajadores asesinados y las decenas de heridas y heridos hace 41 años en Gasteiz*



#EmanBostekoak  
Garaipenari!

Luze eta zabal hitz egin liteke Valentín Bengoaren inguruan, ELAren historia garaikidea ulertzeko ezinbesteko erreferentzia. Hona hemen pertsona handi hau hobeto ezagutzeko aukera paregabea emango diguten bi artikuluko. Egileak Valentín Bengoa gertu gertutik ezagutzeko ohorea izan zuten bi lagun dira: Xabi Anza, ELAren formazio arduraduna, eta German Kortabarria, urte askotan ELAren komunikazio arduraduna izandakoa.

## VALENTIN BENGUA, BIDE LAGUN



Valentín Bengoa Etxebarria Aretxabaletan jaio zen 1923an. Aita ELAko militante izan zuen, eta baita diruzaina ere sindikatuaren herriko batzan. Haurtzarotik gudaren alde latzak jasan behar izan zituen, eta horrek eragin sakona utzi zuen berarengan. Artean oso gazte zelarik, Jesusen Konpainian sartu zen. Ikasketak hainbat lekutan egin zituen: Durangon, Xabierren, Loiolan, Oñan... Zenbait urtetan Latinoamerikan (Nikaragua, Venezuela...) eta Ipar Afrikan ere ibili zen, baina 50eko hamarkadan Loiolara bidali zuten. Han, besteak beste, apostolutza-ardurak, batez ere gazteentzakoak, eman zizkioten.

Sarritan gogoratzen zuen nola 50eko hamarkadatik bertatik argi ikusten zuen mundu baten gainbehera. Aldaketa hura ez zen nabarmentzen bakarrik elizaren baitan, sekularizazioaren eraginez, edo diktaduraren higaduran, baita ideologia eta kultura arloko erreferentzietan ere nabaria zen. Etortzeko zen aldaketa soziala eta ekonomikoa susmatzen zen ordudunik. Hori horrela izanik, 60ko hamarkadan gogor lan egin zuen erreferentzia berrien bila, eta klandestinitatean antolatutako eztabaida ideologiko eta politikoetan buru-belarri murgildu zen. Aldiro-aldiri joaten zen Donostiara eta Iparraldera aldizkariak eta liburuak eskuratzera, Hegoalden eskuraezinak baitziren, eta behar-beharrezkoak zituen ideiak elikatzen. Bengoa-

ren inguruan gazte-taldeak sortu ziren, eta haien artean kezka sozialak partekatu eta elkarri trukatzeko zizkioten. Agian, sindikalista moduan egin zuen ekarpenik handiena huraxe izan zen: talde bat antolatzea, gerora ezkertiar, sindikalista eta abertzale bilakatu zena. Talde haren gune nagusia Urola bailaran zegoen, eta 1974. urtetik aurrera, Alfonso Etxebarria lideregoaren pean, saiakerak egin zituzten erbesteko ELAren zuzendaritzarekin harremanetan jartzeko. Elkartze hura 1976ko III. Kongresuan hezurramitu zen, organoen eta antolamenduen aldetik.

Frankismoa eta gero, behin sindikatua legezatu ondoren, Bengoak bere erabaki baten berri eman zion sindikatuko zuzendaritzari, beti eutsi izan diona: berak ez zuela parte hartuko sindikatuko organoetan, antolamendu-erabakietatik aparte geratuko zela. Horregatik, 1976az geroztik jokatu duen papera lotuago egon da argitalpenen eta prestakuntzaren arloekin. Jesuitaren ekarpena, bere maila intelektual handiko ikuspegitik, hazkunde biziko erakunde haren –80ko hamarkadako ELA– gogoeta kolektiboa pentsamolde editorial bihurtzen laguntzea izan zen. Ekarpenearen testigantza aise aurkitu daiteke hainbat argitalpenen ezin konta ahalako artikuluetan, batzuetan bere ize naz sinatuak, besteetan goitizenez sinatuak –Jauregi izenpean, besteak beste–.

80ko hamarkadaren lehen urteetan Latinoamerikako bere jesuita lagunetik harremanak estutu zituen, batez ere Nikaraguako jesuitekin (Fernando Cardenal ministro sandinistaren irakaslea izana zen), eta baita El Salvadorrekoekin (Jon Sobrino eta Ellacuria martiria). Berezi Miguel Elizondo maisu jesuita miretsi eta goraiatu zuen. Bere esanetan izugarri lagundu zion fede kristauaren eta bizitza politikoaren arteko sintesia gauzatzen. Oporraldiek ematen zioten aukeraz baliatuz, Erdialdeko Amerikara joan ohi zen. Askapen teologikak goitik behera eraldatu zuten –horrela aitoren

tzen zuen– bai sinestun gisa, bai apaiz gisa, bai sindikalista gisa. Gustavo Gutierrezen eskutik 60ko hamarkadaren hasieran sorturiko teologia hark eskaini zizkion behar zituen mihizadura eta baliabideak, bere fede kristau sakona eta konpromiso sozio-politikoak uztartzeko.

Mendez aldatzearekin batera urrituz joan ziren Bilboko egoitza nagusira egin ohi zituen bisitak. Dena dela, erretiroak ez zizkion loturak moztu sindikatua- ren ibilbidearekin. Estimatu handian zituen militanteekin eta zuzendaritzakoekin egiten zituen topaketak, eta azken unera arte sindikatura deitzen zuen informazio eske. Astelehenero, aste honetara bertara arte, Bilboko Prestakuntza Atalera deitzen zuen, zehazki Joxangel Ulariari, egoera sozial eta politikoaren ildo nagusiez galdezka. Eta orain dela egun gutxi arte, bisitari ugari hartzen zituen Loiolako erizaindegian bertan.

Urtetan ezetza eman eta gero, azkenean 2013an amore eman zuen, eta ELAren omenaldia onartu. Ekitaldia aurtengo urtarrilean izandako XIII Kongresuan egin zen. Han eman zuen hitzaldia YouTubean dago eskegita, eta jesuita atxabaltar haren nortasun apartaren erakusgarria da, sindikalista peto-petoa. Euskaldu- na jauregia behera amildu zen 90 urteko agureak, besteak beste, “Gora piketeak!” oihukatu zuenean, bertan zeuden grebalariek aupatu nahian. Kongresura gonbidaturiko nazioarteko ordezkariak ezin zuten sinesten jesuita zahar haren mintzaldi sindikala, Kongresuko sindikalistak gazteenen gozagarri izan zena.

Mintzaldi hartan, hala ere, xehetasun batean erratu zuen. Omenaldia egin arren, hiltzeko batere asmori ez zuela ziurtatu zigun, eta hurrengo kongresuan ere hantxe egongo zela. Hurrengo kongresua 2017ko ekainaren erdialdera izatekoa da, baina tamalez ez da gure artean egongo. Berriki, 2017ko otsailaren 25ean, utzi gaitu. Haren oroitzapenak, alabaina, bizirik iraunen du ELA-ko guztiongan.

Omenaldi hartan makila bat eman zioten opari, eta baita titulu bat ere, berak zinez eskertu zuena: bidelagun. Izan ere, oso gogoko zuen ideia hura. ELAko ehunka lagun izan ditu bidaide hainbat eta hainbat manifestazio, batzar, ikastaro edo hitzalditan.

Goian bego. Ez Adiorik!

Xabi Anza

## BALENTIN BENGUA, LAGUNDU BAINO EGIN EZ ZUEN MAISUA

Balentín Bengoa joan zaigu. Gerra aurreko Aretxabaletan, artean mutiko, hasi zen sindikalizazioan Balentin –kuoten erreziboak prestatzen, abisuak pasatzen...– ELAko militante zuen aitari eskutik. Orduan erretako kontzientzia abertzalea eta ahulenekiko konpromisoa berekin eraman ditu azken hatseraino.

Gazte zelarik sartu zen Jesusen Lagundian. Ordenak hartu ondoren Ertamerikara bidali zuten. Han ezagutu zuen zapalkuntza gordinak indartu egin zituen Balentinengan kontzientzia sozialaren garra eta injustizien aurkako engeiamendua. Berriro Euskal Herrian,

inguruko langile gazteen jabeakuntza eta antolakuntza sustatzeari ekin zion; handik sortuko zen proiektu sindikalaren garapena izango zuen, harrez gero, dedikazio osoko eginkizun. Militantzia sindikala izan zen, azken batez, konpromiso erlijiosoa gauzatzeko bere bidea.

Balentinek garrantzi handia izan du ELAren historian, inoiz bere burua nabarmendu nahi izan ez badu ere: “Ni ez naiz protagonista; lagundu baino ez dut egin”, esango zuen. Bai laguntza bikaina, ordea! Gaurko ELAren ernamuina izango zen Urolako taldearen sustatzaile eta babesle izan zen

–lan klandestinoak elizaren abarora behar zuen garaian–; proiektua taxutzuten ari zeneko bidegurutze zailetan, Balentinen jakituria eta itzala izan genituen lagun; hurrengo urteetan makina bat idazti, batean eta bestean egindako irakurketen ekarpen, hausnarketa agiri, ziurtzat genituenak berraztertzeraren behartzen gintuzten galdera zorrotz... oparitu dizkigu; eta horiekin batera, bere adiskidetasuna, baikortasuna, proiektuarekiko konfiantza.

Ez adiorik, Balentin. Mila esker, maisu, adiskide, akuilu, eredu.

German Kortabarria





# EL DONALD TRUMP DE MUNDAKA



La tarde del jueves 23 de febrero el Diputado General de Bizkaia, Unai Rementería, tenía un acto público en la Casa Torre de Santurtzi. En el mismo el señor Rementería tenía previsto reunirse con casi 70 personas que residen en Ezkerraldea y Meatzaldea para responder a sus preguntas, al igual que tiene previsto realizar en otras comarcas de Bizkaia.

Gaizka era una de las personas que fue elegida por sorteo para participar en el encuentro. Le llamaron por teléfono desde la Diputación y le comentaron a ver si estaba dispuesto. Él, ade-

más de agradecer la invitación, confirmó su presencia.

Dicho y hecho. Gaizka acudió puntual a la cita. Sin embargo, cuando se disponía a entrar a la Casa Torre se le acercó el personal de seguridad para decirle "usted no entra". En seguida enseñó Gaizka tanto la acreditación que le facilitó la Diputación para participar en el encuentro como el DNI. Le dijeron que esperara. Y esperó hasta que acudió Pilar Ardanza, ahora senadora y anteriormente diputada de Acción Social. La señora Ardanza le volvió a recalcar la negativa a poder entrar y participar en el acto.

Pues bien. Gaizka es Gaizka Miguel, uno de los responsables de ELA en las Residencias de Bizkaia. Ese fue el delito de Gaizka, por eso no le dejaron participar. Lo ocurrido es una nueva evidencia de como está actuando la Diputación Foral de Bizkaia en este conflicto laboral. No es la primera vez que en esta publicación denunciamos actitudes muy poco ejemplares –por decirlo

de alguna manera sube– bien del señor Rementería o bien de Isabel Sánchez Robles, diputada de Acción Social.

Pero, mucho más allá del conflicto laboral o sindical, se trata de una actuación profundamente antidemocrática, propia de un régimen autoritario que no duda en practicar el *apartheid* contra parte de sus propios ciudadanos y ciudadanas.

Recientemente gran parte de la prensa mundial se escandalizaba por el hecho de que Donald Trump haya vetado a sus ruedas de prensa a medios de comunicación que son críticos con sus políticas. Vamos, lo mismo que hace el señor Rementería con las y los sindicalistas críticos con su gestión. Las formas y maneras autoritarias son inaceptables en cualquier lugar del mundo.

Así actúa el Diputado General de Bizkaia: participa en foros donde apoya todas las posiciones de la patronal, se niega a intervenir para buscar una

solución al conflicto de las residencias e impide que la voz y los intereses de los y las trabajadoras puedan ser escuchadas. Y, para más inri, en un acto cuyo objetivo era –según la propia página web de la Diputación– escuchar a la ciudadanía.

Para buscar actitudes como las de Donald Trump no hace falta coger un avión e ir a los Estados Unidos de América. Se pueden encontrar entre nosotros y nosotras. Sin ir más lejos, en Mundaka.



Gaizka Miguel, responsable de ELA en las Residencias de Bizkaia

## LABURREAN / BREVES



### ● Bellota pretende externalizar el almacén de herramientas de Legazpi

La dirección de Bellota ha comunicado su intención de externalizar el almacén de herramientas de Legazpi, pasando toda su gestión a la empresa logística DLH, lo que supone el cierre del almacén y su traslado a otro lugar. ELA denuncia que esta operación supone una pérdida de empleos en Bellota Herramientas y un nuevo paso en el cuestionamiento del futuro de esta empresa en Legazpi. Para denunciar esta externalización la plantilla de Bellota se manifestó el 1 de marzo ante la sede de la empresa. La plantilla, además, mostró su rechazo al planteamiento de la dirección; los mismos motivos expuestos por la empresa para externalizar el almacén le pueden servir para cerrar cualquier otra línea o departamento.

### ● El nuevo convenio de ANSA frena la precariedad

La sección sindical de ELA en ANSA valora positivamente el acuerdo alcanzado con la dirección de ANSA sobre el nuevo convenio colectivo; la plantilla ratificó el 1 de marzo el acuerdo logrado por el comité. El acuerdo, entre otros muchos aspectos positivos, recoge subidas por encima de IPC para la vigencia del convenio y adecuación de esos incrementos a los pluses, fijación del tiempo máximo de contratación por ETT con obligatoriedad de contratación por empresa al finalizar dicho periodo o cláusulas de blindaje contra la inaplicación y de ultraactividad indefinida.

ELA valora muy positivamente este acuerdo, fruto de la lucha de la plantilla contra la precariedad. De este modo se ha podido hacer frente a la intención de la dirección de ANSA de, pese a su buena situación económica, precarizar las condiciones laborales mediante la introducción de dobles escalas.

### ● La plantilla de Elecnor contra la precariedad laboral

La plantilla de Elecnor –empresa subcontrata de Telefónica en Navarra– realizó el 3 de marzo un paro de 24 horas para denunciar la situación de precariedad extrema que se vive dentro de la empresa. Esta situación de precariedad se traduce en una falta de medidas de seguridad y de prevención de la salud, que en este último año han generado como consecuencia, dos accidentes muy graves.

El sistema de trabajo instaurado por Telefónica, en la que la subcontratación de servicios, se traduce en la práctica, en un abandono de sus responsabilidades empresariales, comportamiento que reproduce y comparte Elecnor, con el beneplácito y complicidad de Telefónica. Elecnor incumple sistemáticamente todas las obligaciones que tiene hacia los trabajadores y permanentemente es sancionada por parte de inspección y los juzgados, sin importarles que dichos incumplimientos han sido los causantes de costarnos casi la vida de dos compañeros.

### ● ELA quiere hablar de fiscalidad con instituciones y grupos parlamentarios

ELA ha solicitado reuniones al Consejero de Hacienda, a los Diputados Generales de los tres territorios de la CAPV y a los grupos parlamentarios de EH Bildu y Podemos para hablar de fiscalidad. Mikel Noval, responsable de política social de ELA, señala que "ya es hora de que se abra el debate sobre la fiscalidad. ELA lleva muchos años denunciando el elevadísimo fraude fiscal existente en las rentas no salariales, así como que la política fiscal se ha centrado en bajar los impuestos a las rentas altas, a las empresas y al capital".

El objetivo de estos encuentros, destaca Noval, es

trasladar las propuestas de nuestro sindicato para abordar un posible cambio radical de la fiscalidad. "Además de abrir el debate es necesario que se concrete lo que se quiere plantear y ELA va a demandar que se priorice el aumento de las inversiones sociales y que la recaudación se realice de manera justa".

### ● Nuevo record en Osakidetza: 215 contratos en los últimos 4 años

Hace un mes ELA realizó una reclamación para exigir las indemnizaciones correspondientes a los 141 contratos que una trabajadora de Osakidetza había tenido los últimos 4 años. Pues bien, ahora Osakidetza ha batido –y con solvencia!– su propio record: el 27 de febrero ELA registró dos nuevas reclamaciones: en una de ellas se reclaman 215 contratos, en la otra 197. ELA, nuevamente, exige a Osakidetza que trate esta cuestión con seriedad y abra un proceso de negociación que evite la confrontación judicial. Osakidetza debe dejar de ser la mayor ETT de Euskal Herria; tiene 14.000 personas temporales y una temporalidad superior al 40%. ELA tiene claro que hacer una apuesta por la estabilidad y la dignidad es hacer apuesta por la sanidad pública. Exigimos a la nueva dirección de Osakidetza que tenga la misma sensibilidad.

### ● Apirilak 1, gizarte eskubideen aldeko manifestazioa Bilbon

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak gizarte eskubideen aldeko eta murrizketen kontrako manifestazioa antolatu du apirilaren 1erako –larunbata– Bilbon (17:30, Jesusen Bihotza). Deitzaileek –ELA ekimen honen parte ere bada– aldarrikatzen dutenez babes sozialeko euskal sistema integrala, duina eta kalitatezkoa behar dugu. Horretarako, noski ezinbestekoa prestazio sozialak indartzea eta orain arte egin diren murrizketetan atzera egitea.



**ELAk borrokaren lehen lerroan dauden emakumeak omenduko ditu Martxoaren 8a dela-eta Bilbon egingo duen ekitaldian**

# SINDIKALGINTZA FEMINISTA ERAIKITZEN



Asko dira uneotan borrokaren lehen lerroan dauden emakumeak. Klase sindikalismoa eta borroka feminista partekatzen ari diren pertsonak dira. Izan ere, borroka hauek bat egiten dute bizitzaren prekariedade eta prekariedade laborala elkar-gurutzatzen direnean.

ELAk emakume guzti hauek omendu nahi ditu aurtengo Martxoaren 8an. Horretarako ekitaldi bat antolatu du Euskal Herriko Unibertsitateak Abandoibarran (Bilbon) duen Paraninfoan; ekitaldia 10:15tan hasiko da. Lehendabizi Nagore Uriartek egingandako *Sindikalismoa feminismotik* dokumentala ikusteko aukera egongo da. Ondoren, zerbitzu publikoetako ordezkari Esther Saavedrak gidatuta solasaldi bat egongo da. Bertan ELAko berdintasun arduradunek –Jone Bengoetxeak eta Leire Txakartegik– honako bi gal hauek landuko dituzte hurrenez hurren: borroka sindikalaren eta borroka feministaren arteko uztarketa eta genero eraldaketarako antolakuntza prozesua ELAren baitan. Ekitaldiari amaiera emateko ezusteko bat egongo da. Oraingo ezin dugu gehiago aurreratu, baina bertan borroka ezberdinetan lehen maila egon diren hainbat emakume omenduko dira.

Ondoren, 12:00tan, manifestazio batek EHUko Paraninfoa eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza lotuko ditu. Manifestazioan Bizkaiko erresidentzietako langileek protagonismo berezia izango dute. Izan ere, egun horretan lau astetako greba eta mobilizazio txanda berri bati ekingo diote. Manifestazioaren ostean amaiera ekitaldi bat egongo da; bertan borroka eredu garri hau eramaten ari diren emakumeak omentzeaz gain sindikatu osoak lan gatazka honi bere atxikimendu oso erakutsiko dio. **Gora emakumeon borroka! Gora Bizkaiko erresidentzietako langileak!**

*ELA homenajeará el 8 de Marzo a todas las mujeres que están en primera línea de lucha. A las 10:15 habrá un acto en el Paraninfo que la UPV tiene en Abandoibarra (Bilbao). Posteriormente una manifestación recorrerá el trayecto hasta la Diputación en solidaridad con las trabajadoras de las residencias de Bizkaia*

## CONSTRUYENDO UN SINDICALISMO FEMINISTA

Este año lo decimos alto y claro: ¡las mujeres en la primera línea de lucha! Y lo decimos en un contexto en el que el sindicalismo de clase y la lucha feminista comparten camino. Así, estas luchas confluyen cuando la precariedad de la vida y la precariedad laboral se entrelazan y sacan a la luz la necesidad de reconocer todos esos trabajos imprescindibles para el sostenimiento de la vida: los trabajos de cuidado y de reproducción social.

La lucha sindical se hace eco de ello y advierte que cuando esos trabajos absolutamente feminizados pasan al mercado laboral formal lo hacen con menor reconocimiento social y económico. Si no, que se lo pregunten a las trabajadoras de las residencias de Bizkaia, que, con más de cien días de huelga, son un claro ejemplo. Por un lado, queda en evidencia la dejadez de las instituciones y la priorización del negocio. Por otro lado, pone de manifiesto el no reconocimiento de la labor que realizan estas mujeres y la precarización de sus condiciones laborales y de vida.

En ELA seguimos creyendo que el sindicato es un instrumento útil y valioso a la hora de luchar por unas condiciones de trabajo dignas y justas en todos los sectores, pero más, si cabe, en todos aquellos en los que no ha habido un reconocimiento ni una organización histórica, como son los sectores precarios feminizados.

Reconocemos asimismo la necesidad de ver que lo que hasta ahora hemos entendido como el "interés general de la clase trabajadora" conlleva una lectura de género, y que existen intereses diferenciados entre mujeres y hombres en la sociedad y en el mercado de trabajo.

Por último, reivindicamos con fuerza las luchas sindicales protagonizadas por mujeres. A menudo vemos cómo éstas se convierten en verdaderos procesos de empoderamiento individual y colectivo. Luchas que cuestionando los tradicionales roles de género, poco a poco van consiguiendo romper con estereotipos del mundo sindical tanto dentro como fuera del mismo.

Por todo ello: ¡Las mujeres en primera línea de lucha!



**www.ela.eus / @ELAsindikatu / ELA-Facebook**

**ELA** EUSKAL SINDIKATUA **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao  
Tel. 94 403 77 00  
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela.eus**

Franqueo concertado  
nº 08/207